

ARGITALPEN ZERBITZUKO ERAGILEA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ESKAINNTZA

Euskaltzaindiak pertsona bat kontratatu nahi du Argitalpen Zerbitzuko eragile lanpostua betetzeko. Langunea Euskaltzaindiaren egoitzan izango du, Bilboko Plaza Barriaren 15. zenbakian.

EGITEKOAK

- Euskaltzaindiaren argitalpen-politika proposatzea.
- Argitalpen Zerbitzuaren helburuak proposatzea, horiek betetzea eta adierazleen bidez neurtzea.
- Argitalpenen urteko plangintza prestatzea, gauzatzea eta etengabeko jarraipena egitea.
- Argitalpen Zerbitzuaren koordinazio orokorra egitea: urteko zereginak definitzea eta haiei jarraipena egitea.
- Argitalpenen ekoizpen, hedapen eta salmenta prozesuetan hobekuntzak proposatzea, eta horiek gauzatzea.
- Urteko argitalpenak ekoiztea: originalak, egile-eskubideak, hizkuntza-zuzenketa, maketak... kudeatzea.
- Urteko argitalpenak banatzea. Banatzaileekin harremanak/akordioak egitea argitalpenak posizionatzeko, ikusarazteko eta abar.
- Urteko argitalpenen hedapena egitea. Azokak kudeatzea.
- Urteko argitalpenen salmenta eta fakturazioa egitea, erreklamazioak barne. Salmentei buruzko txosten ekonomikoa prestatzea.
- Gordailuaren eta egoitzako/ordezkaritzetako gordailu txikiak/liburutegiak kudeatzea. Izakien inbentarioa egitea.
- Bilduma berriak proposatzea.
- Bertako eta atzerriko argitaletxeekin aliantzak/tratu bereziak proposatzea eta horiek gauzatzea.
- Argitalpenen nazioartekotzea bultzatzea.

BALDINTZAK

- Titulazioa. Honako titulazio hauek egiaztatzea baloratuko da:
 - Argitalpenen diseinuko eta edizioko goi-mailako teknikaria,
 - Ekoizpen grafikoaren diseinuko eta kudeaketako goi-mailako teknikaria,
 - Aurreinprimaketa digitaleko teknikaria edo antzeko titulazioa.
- Esperientzia: lanpostuko egitekoetan lan-esperientzia izatea baloratuko da.
- Hizkuntza-gaitasuna:
 - C1 euskara-maila egiaztatuta izatea. C2 euskara-maila izatea baloratuko da.
 - Gaztelaniaz maila altua izatea derrigorrezkoa da.
 - Frantsesaren eta ingelesaren ezagutza baloratuko da. Mailak egiaztatuko dira.
- B motako gida-baimena izatea nahitaezkoa da.

INFORMAZIO OSAGARRIA

- Kontratua: lanaldi osoko lan-kontratu mugagabea, 6 hilabeteko probaldiarekin.
- Lan-baldintzak: hasierako balorazioa gainditu eta elkarrizketa pertsonalaren fasera igarotzen diren hautagaiei banan-banan eta zehaztasunez jakinaraziko zaizkie lan-baldintzak, soldata barne.

HAUTAKETA-PROZESUA

Interesdunek curriculum vitae eta motibazio-gutuna bidali beharko dituzte info@euskaltzaindia.eus helbide elektronikora, **2026ko uztailaren 6ko 09:00ak baino lehen.**

Epemuga horren ondoren jasotako hautagaitzak ez dira onartuko.